



2002/12/20ko prentsa-oharra

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)2002ko azaroa

BIDAIARIEN SARRERAK %11 GEHITU DIRA 2002KO AZAROAN

Gaualdiak %6 igo dira iazko hil beraren aldean.

2002ko azaroan, 117.516 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 12.000 sarrera gehiago, hau da, %11 gehiago, Eustatek eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %23 gehitu dira Bizkaian eta %7 Gipuzkoan; Araban, aldiz, apur bat jaitsi dira (%-1).

Atzerriko bidaiarien sarrerak %13 gehitu dira, estatutik datozenen aldean bi puntu handiagoa (%11). Atzeritik datozen bidaiarien kopurua nabarmen igo da Gipuzkoan (%21) eta Araban (%18); eta neurritsuago Bizkaian (%6). Estatutik datozen bidaiariak ere nabarmen gehitu dira Bizkaian (%30) eta neurritsuago Gipuzkoan (%4); baina Araban (%-4) urritu egin dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, autonomia-erkidego guztietatik etorritakoak gehitu dira, Gaztela-Mantxatik eta Valentziatik etorritakoak izan ezik, eta bolumenagatik aipagarri dira Madrildik eta Kataluniatik datozenak. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da, Frantziatik, Erresuma Batutik, Italiatik eta Portugaldik datozen bisitariak izan duten gehikuntza; pixka bat urritu dira, ostera, USA-Kanadatik, Iberoamerikatik eta Alemaniatik etorriak.

2002ko azaroan, 228.890 gaualdi erregistratu dira, aurreko urteko hil berean baino 12.500 gehiago izan dira, hau da, %6 gehitu dira ehuneko-balioetan. Egindako gaualdien kopurua asko hazi da Bizkaian (%23), Gipuzkoan askoz gutxiago (%2) eta Araban %15 jaitsi dira Araban.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldia, iazko 1,95 egunetik aurtengo 2,05 egunera luzatu da, 2002ko azaroan.

Plazakako betetze-maila %1 jaitsi da Euskal AE osoan eta gelakakoa gehiago, %3. Jaitsiera biak Arabako datuetatik datoz.

Nekazalturismoa: gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (%27) eta gaualdiak (%13)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 5.340 bidaiari-sarrera izan dira 2002ko azaroan, aurreko urtean baino %27 gehiago: %64 gehitu dira Araban, %39 Gipuzkoan, eta mantendu egin dira Bizkaian (%0). Gehikuntza hori Estatutik datozen bisitariak eragin dute, %29 gehitu baitira; atzerritik datozenak, aldiz, %11 urritu dira, Euskal AEko guztizkoan.

Egindako gaualdiak 12.199 izan dira, hau da, 2001eko azaroan baino %13 gehiago, eta horrek Araban (%29) eta Gipuzkoan (%26) eragin du; Bizkaian %8 gutxiago izan baitira.

Batez besteko egonaldia %11 laburtu da Euskal AE osoan eta horrek eragina izan du hiru herrialdeetan: Araban %-21 moztu da, Gipuzkoa %-10, eta Bizkaian %-8. Hori guztia bidaiarien sarrerak gaualdien kopurua baino gehiago hazi delako.

Argibide gehiagorako:

	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: +34-945 017 500 Faxa: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel.: +34-945 017 506 Faxa: +34-945 017 501 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
2002/11	%	2002/11	%	D%		2002/11	%	2002/11	%	D%		2002/11	%	2002/11	%	D%		2002/11	%	2002/11	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERAK	117.516	100	105.508	100	11	22.487	100	22.650	100	-1	48.648	100	39.505	100	23	46.381	100	43.353	100	7
Estatukoak	91.754	78	82.760	78	11	18.261	81	19.078	84	-4	37.096	76	28.594	72	30	36.397	78	35.088	81	4
Atzerrikoak	25.762	22	22.748	22	13	4.226	19	3.572	16	18	11.552	24	10.911	28	6	9.984	22	8.265	19	21
GAUALDIAK	228.890	100	216.135	100	6	37.906	100	44.448	100	-15	97.058	100	79.160	100	23	93.926	100	92.527	100	2
Estatukoak	174.744	76	169.254	78	3	30.860	81	37.248	84	-17	69.016	71	54.881	69	26	74.868	80	77.125	83	-3
Atzerrikoak	54.146	24	46.881	22	15	7.046	19	7.200	16	-2	28.042	29	24.279	31	15	19.058	20	15.402	17	24
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,95		2,05		-5	1,69		1,96		-14	2,00		2,00		0	2,03		2,13		-5
PLAZAKO BETETZE MAILA	43,54		44,12		-1	41,35		54,45		-24	45,05		41,18		9	42,96		42,84		0

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARIEN SARRERAK	5.340	100	4.220	100	27	1.033	100	631	100	64	1.703	100	1.711	100	0	2.604	100	1.878	100	39
Estatukoak	5.145	96	4.001	95	29	1.012	98	623	99	62	1.664	98	1.638	96	2	2.469	95	1.740	93	42
Atzerrikoak	195	4	219	5	-11	21	2	8	1	163	39	2	73	4	-47	135	5	138	7	-2
GAUALDIAK	12.199	100	10.820	100	13	2.073	100	1.612	100	29	3.952	100	4.289	100	-8	6.174	100	4.919	100	26
Estatukoak	11.526	94	9.813	91	17	2.017	97	1.500	93	34	3.838	97	3.857	90	0	5.671	92	4.456	91	27
Atzerrikoak	673	6	1.007	9	-33	56	3	112	7	-50	114	3	432	10	-74	503	8	463	9	9
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,28		2,56		-11	2,01		2,55		-21	2,32		2,51		-8	2,37		2,62		-10
PLAZAKO BETETZE MAILA	18,88		18,06		5	17,41		13,71		27	19,09		21,99		-13	19,29		17,17		12

Iturria: EUSTAT